

JAINKO BILA

Iñaki Katxo

Baztertu ezineko galdera du gizakiak Jainkoarena. Ez dakigu ezer Jainkoari buruz, berau bait da gure muga. Baina Jainkoaz galdezka ari gara, Jainkorik gabe nekez aurkitzen bait dute erantzunik bizitzako gure galderarik sakonenek.

Etengabeko galdekizuna du gizakiak Jainkoarena. Izan diren kultura nagusi guztiak gertatu dira Jainkoaren aldeko ala aurkako jarrera hartu beharrean. Antzinako kulturetatik (ehiztarien, nekazarien, artzainenetik) hasita, gaurko kultura ekonomiko, tekniko eta zibernetikoaraino. Izadiko gertakariez haratago, unibertsoaren sorburuari eta helburuari, ordenari eta desordenari buruz galdetzen zuten haiek. Kontsumoaren eta produkzioaren gailentasunaz haratago, biziaren zentzuaz eta giza bihotzaren irrikez galdetzen du kultura modernoak. Gure garaiko *humanismoek ere --existentzialismoak, *marxismoak, estrukturalismoak...-- ez daukate osotasunaren zentzuaz azkenburuko galdera baztertzerik. Ik. Nekazal erlijioa; Artzain-erlijioa.

"Humanismo marxista, *ateismoaren esangura negatibo hutsetik (Jainkoaren ukapenetik) harantza kokatzen bada ere, ez ditu baztertzen gizakiak bere buruari, bere jatorriari eta xedeari buruz, bere adimenaren eta bihotzaren eskakizunei buruz --hots, gizakiaren baieztapenari buruz-- jartzen dituen funtsezko galderak. Erlijioaren handitasuna galdera horiei erantzuna ematean agertzen bada, horren ahultasuna galdera horiei erantzun dogmatikoa eman usteen dago; behin-betikotzat hartzen bait du orduan ezagutzaren egoera jakin bat, eta horri lotzen bere erantzuna, nahiz eta ezagutzaren edozein egoera garaiko humanismo hutseek markatuta egon. Itxura hutsezko erantzunak ukatzen ditu humanismo marxistak, baina ez horien jatorrian dauden benetako galderak" (R. Garaudy).

Galdera horiek ez dira sortzen derrigorrez, gizakiaren *arrozketako egoeran eraturiko pentsamolde eta erlijiozko gainegituratik. Giza izaeraren hondo-hondoak iradokitzen ditu horrelako galderak, haurraren xalotasunaz eta jakintsuaren sakontasunaz. Jainkoari buruzko galdera (*teologia) gizakiari buruzko galderari (*antropologiari) lotu-lotuta dago. Eta Jainkoaren galderari ematen zaion erantzuna, gizakiari buruzko erantzunaren oihartzun trazendentala besterik ez da. Gizakiaz pentsatzen duguna bera pentsatzen dugu Jainkoaz ere.

Gizakiaren kontzeptu pragmatikoak baztertu egingo du Jainkoaren arazoa, honek etekinik ez badakar. Gizakiaren kontzeptu existentzialistak ezingo dio Jainkoaren arazoari ihes egin, Jainkoari buruzko galdera giza bizitzaren zentzu osoari buruzko galdera delako. Kontsumo-eta produkzio-gizarteak ez du, beraz, bere-berea *Jainko-esperientzia. Esperientzia pragmatikotik (baliagarriaren esperientziatik) baino hurbilago dago Jainkoarena esperientzia estetikotik (ederraren esperientziatik). Gizaki produzitzailearen negoziokoak eta teknikak baino maila sakonagokoa da Jainko-esperientzia. Gizakiaren *libertatearen alorrean gertatzen da erlijiozko esperientzia, hortxe gertatzen bait dira gizakiaren itxaropena eta maitasuna. Giza irrika sakonenen mundukoa da erlijio-esperientzia, azokako etekinik ez duten irrika eta zaletasun behin-betiko eta iraunkor horien mundukoa, gizakiaren azkengabetasunaren alorrekoa. Ik. Erlijiozko esperientzia.

I. JAINKOAREN UKAPEN BEHARREZKOA

Jainkoari buruzko galdera bidezkoa da; okerra, erantzuna izan daiteke. "Buru-arrozketako edo alienazioa gerta daiteke erantzunetan; baina ez galderetan" (J.B. Metz, teologoa). Biziaren iturburuaren, helburuaren eta zentzuaren mitoak baino harantzago, gizakiaren geroa-erikio eta heriotzarekiko ikuspegi arrotzuez haratago, hor dago azkenduaren eta azkengabearen arteko dialektika, benetako dialektika oraindik ere.

XX. mendeko *humanismoak ez dira zuzenki ateoak. Gizakiaren baieztapenaren ondorioz dator Jainkoaren ukapena. Horretaxe bereizten dira humanismo horiek, historian zehar izan diren bestelako *ateismoetatik.

A) ATEISMO HISTORIKOA

Historikoa da funtsean XVIII. mendeko ateismoa. Historian zehar Jainkoa irudikatzen erabili izan diren irudiak ukatzen dator Jainkoa bera ukatzea, ateismo horren arabera; Jainkoa agertu uste duten instituzio, baina boterean (ekonomikoan nahiz politikoan) oinarritzen direnak: horiek ukatzen Jainkoa bera ukatzen darama XVIII. mendeko gizakia. "Instituzio horiek agertzen duten Jainkoa nik ez dut sinesten" (Maximos IV., patriarka).

Aurretik zetozen instituzio sozial eta politikoen aurka borrokatzen zirelarik, Elizaren aurkako gertatzen ziren filosofo materialistak eta entziklopedistak, estatuaren alde bat bait zen orduan Eliza, eta despotismoa jainkozko zuzenbidearen bidez finkatzen bait zuen. Erlijioaren aurkako borroka, gizakiaren askatasunaren aldeko borroka alderdi bat besterik ez da orduan. "Beren bizitza osoan lan eta lan dihardutenei etsimendua predikatzen die Elizak mundu honetarako, betiko bizitzaren itxaropen kontsolagarriarekin batera. Inoren neketik bizi direnei, ordea, eskuabail izaten erakusten die erlijioak, eta horrela horien zurrupatzaile-kontzientziari zuribide erraza eskaintzen die eta zeruko zoriodegira sartzeko txartel merkea saltzen. Pattar izpiritualaren antzekoa da erlijioa, lanaren menpe bizi direnak beren giza nortasuna eta giza bizitza duinaren aldeko errebindikazioak ito dituzten. Populuaren lobelarra da erlijioa" (K. Marx).

Gizarte feudalaren eta kapitalistaren suntsibidean benetako aurrerapenik ekarri du ateismo historikoa, estatua politikarako Elizak baliatzen dela nabarmendu bait du. Hortxe datza ateismo horren handia. Baina badu mugarik handitasun horrek: hots, politikaren ikuspegitik aztertzen duela erlijioa, honek zein giza premiei erantzuten dien eta zein giza balio duen galdetu gabe.

B) ATEISMO ZIENTIFIKOA

XIX. mendeko ateismoa zientista da funtsean. Zientziatzko arrazoiengatik ukatzen du Jainkoa ateismo-mota horrek: hau da, garai bakoitzean, ezjakintasunagatik, Jainkoarekin berdintzen diren eta horri egotzen zaizkion kausak, gero, zientzia aurreratuz doan heinean, kausa natural hutsak direla ezagutzen dugu. Munduaren zientziaurreko azalpentzat hartuz, eraso egiten dio ateismo zientistak erlijiozko ideologiari. Oraingo ezagutzen ez ditugun barrutietan jarri nahi dute Jainkoa zientziaurreko ideologiek, hau da, izurritean, gaixotasunean, heriotzean. Horren arabera, izadiaren ezkutua azaltzeko gauza ez den tokietan, izadiaren gainetik legokeen kausaren baten bila dihardu gizakia, ezkutuko hori argitzeko. Horregatik, zientziaren hutsune-betetzailerik den Jainko horren barrutia estutuz doa, zientziarena zabalduz doan neurrian. Lehen aldiko gizakia, izadiaren kontrako bere borrokan nabari zuen ahultasunak, Jainko ongileengan eta Jainko gaizkileengan edo *demiurgoengan sinestera bultzatzen zuen.

Ateismo zientistak ere badu alde onik, eta da, *misterioaren eta mirariaren zaletasuna mantentzen duten sineskeriei ez dagokien eremua izadiari berari itzultzea. Baina, bestalde, munduaren azalpena kausa enpiriko hutsetara bihurtzeak, helburuen eta azken xedearen arazoa ipintzea eragozten dio gizakiari, bizitzaren azkenburuko zentzuari buruz galdera jartzeko gaitasuna kentzen diolarik.

C) ATEISMO HUMANISTA

XX. mendeko ateismoa humanista da bereziki. Ez da Jainkoa ukatzen hasten, gizakia baieztatzen baizik. Gizakiaren autonomia baieztatzen du aurren-aurrenik. Eta horregatik, gizakiaren ekimena eta sormena eragozten dituen edonolako indar ukatu egiten du.

Bere burua ezagutzen ez duelarik (bere izaera, bere jatorria, bere geroa), bere izatea Jainkoagan ispilatzen behartuta aurkitzen da gizakia: hau da, *mundua eta bere burua lantzeko gaitasuna Jainkoari egotzen. Prometeo-ren fede-aitormena berekotzat hartzen du filosofia humanistak: hots, "jainko guztiak gorrotatzen ditut nik". Giza kontzientzia absolututzat hartzen ez duten zeruetako eta lurreko jainko guztiak ukatzen ditu, beraz. Horrek ez du etsairik onartzen. Bere buruaz jabetzeko, bere burua jabetasun horretan eta sortzaile-legez lantzeko gauza ez dela somatzen duenean, berez eta izatez dagozkion tasunak erantzi eta bera baino handiago den bati (Jainkoari, Elizari, estatuari) erantzeko tentazioan erortzen da gizakia, handiago horrek beraren tasunak eskura eta kontrola ditzan. Horra hor erlijiozko alienazioa edo *arrozketak, beronen esangura teknikoz ulertuta. "Sinestunek Jainkoa aitortzen

dutenean, zera somatzen dugu ateo jainkogabeok: behin-behineko zerbaiten lege hartzen dutela gizakia, ez dutela hori benetan hartzen" (C. Luporini).

Baina ateismo humanistak, benetan pertsonalista denean, onartzen du, onartu, natur zientziak eta giza zientziak ez dutela erlijiozko galdera baliogabetzen, zientziak hauteman ezin dituen giza izatearen geruzetan sortzen bait da erlijiozko galdera.

Gizakia bera problema den aldetik, erlijiozko problema dauka berak. Gizakiaren funtsera jotzean jartzen gara gaur aurrez aurre sinesgabeak eta sinestunak. "Fedeari dagokionez --bai Jainkoaganako fedeari eta bai gizakiaganako fedeari dagokionez--, denok gaude behartuta gizakia bere giza osotasunean lantzeko, ekimen-iturri bizi bihurtzeko, fededunek traszendentzia (Jainkoa) eta ateoek benetako gizatasuna (gizakia) deitzen duten esperientzia egunero gaudituko duen izaki egiteko; denok gaude behartuta horretara, direnak direla gizakiaren jatorburuari eta xedeari buruzko eritzien aldeak" (R. Garaudy).

Gizakiak, bere arrozketak ekonomiko, sozial eta politiko guztietatik atera dadinean, argitua izango ote du bere enigma, ala bere bizitzaren zentzu osoari buruz galdezka jarraitu beharko ote du? Ateismo humanista prest dago galdera horrek eta horri legokiokeen erantzunak botatzen dion erronka jasotzeko; baina, beti ere, gizakiari, gizaki den aldetik dagozkion dimentsioak kentzen ez zaizkion bitartean.

II. JAINKOAREN BAI EZTAPEN OINARRITUA

Jainkoa baieztatzeko nahiz ukatzeko frogalekua dira mundua eta gizakia. Baieztapenak nahiz ukapenak munduaren eta gizakiaren frogak igaro beharra daukate. Froga horri erantzuteko gauza ez diren baieztapena nahiz ukapena *fideismora erortzeko arriskua dute: "Sinesten du dalako sinesten dut".

Argitu ote daiteke mundua, beronen osotasunean, beraren baitatik? Eman ote dezake gizakiak bere buruaren argibiderik bere baitatik?

A) UNIBERTSOA ETA JAINKOA

Natur zientziak (geologiak, biologiak, zoologiak, antropologiak) ikertzen dute mundua eta horren osagaia den gizakia. Autonomoak dira zientzia horiek, eta, beren metodoari eutsiz, esperimentu bidez frogak ezin daitezkeen edozein hipotesi baztertzen dute. Unibertsoak ez du Jainko-hipotesiaren beharrik, bere buruaren argigarritzat. Jainkoa ez da natur zientzien ikergaia. Horien barrutitik kanpo dagoen solasgaia (zuzena ala okerra) izan daiteke gehienik ere.

1. Unibertsoaren zientzia

Zer da unibertsoa? Munduikuskera tradizionalak --fixistak-- beren artean erabat bereiz daudenen eta bata bestetara bihur ezin daitezkeen elementuen multzotzat ikusten du unibertsoa.

Mineralen unibertsoa (geosfera) 4.000.000.000 urtetakoa da gutxi gorabehera; eta ez du landareen eta animalien unibertsoarekin (biosferarekin) zerkusirik batere; 2.000.000.000 urte inguru ditu horrek. Gizakiaren unibertsoak (noosferak), ordea, 600.000 bat urte ditu, eta biologi aldetik ez dago beste mundu horietara bihurtzerik; eta, gainera, zientzia denez, natur zientzietatik apartekoa da: hots, antropologia (psikologia, soziologia, filosofia). Izadiaren zientziaren aurremanetatik ezin aterazko enigma da gizakia izadian.

Munduikuskera modernoak (eboluzionistak) batasunean ikusten du unibertsoa: horren elementu guztiak (geologikoak, biologikoak, noologikoak) elkarturik doaz beren sorreran eta beren eboluzioan. "Bere egituran eta bere funtzio fisiko, biologiko eta psikikoan gero eta bizimolde konplexuagotara etengabeko bilakaeran doan sistema batasunduntzat agertzen zaio zientzilariari unibertsoa" (P. Teilhard de Chardin).

Egia da, bai, elementu ezberdinen artean badaudela esperimenez ikus daitezkeen diferentziak. Alga eta kristala ezberdinak dira, eta gizakia eta primate helduenak ere ezberdinak dira beren artean, oso nabarmenki izan ere ezberdinak. Horregatik, gizakiaren animalitasuna sistemaz ukatzeak ekarri du gizakiak animalien munduko beste espeziei buruz duen berezitasuna ere sistemaz ukatzea. Ezberdina da biologi aldetik, "zutik dabilelako, okotz

nabarmena duelako, arrosa koloreko ezpainak dituelako eta batez ere bere zerebroaren astunagatik (1.300 g ditu, gorilak 463 g dituen bitartean) eta bere buruhezurraren edukieragatik (1.400 cm² ditu, primateak 600 cm² dituen bitartean)" (Jean Rostand, biologoa). Psikologi aldetik ere badu ezberdintasunik: "Animaliarik babesgabeena eta urragarriena da gizakia; baina beste animalia armatu eta zauriezinak (letaginak, atzaparrak, bularreko ezkutua dituztenak), bere beste ahalmen hauen bidez menperatu ditu: garuneko ahalmenaren (intentzionalitatearen) eta bihotzeko ahalmenaren (elkarkortasunaren) bidez". (J.Muller, biologo amerikarra). Ezagumenaren aldetik ere ezberdina da gizakia. Gogoetatu egiten du, eta gogoetatzean bere burua gogo ematen du. Aurrerapenerako ahalmena du gizakiak, eta aurrerapen horiek bere irudimenean dauzka egikaritu aurretik. "Gizakiaren txikiagotasunak garaitu egiten du animalien mundua, bere trebetasunaren eta bere ekimenaren handiagotasunagatik" (C. Tresmontant).

Baina sentsuez hauteman genitzakeen alde eta ezberdintasun horiek eta guzti, bada kide-tasun eta elkartasun mina unibertsoko elementuen artean. "Lurretik sortzen da gizakia oso-osorik. Ez horren hezur eta haragia bakarrik, eta bai pentsatzeko eta maitatzeko duen ahalmen harrigarria ere" (Teilhard de Chardin). Animalien erreinuarekin kide-tasun biologiko-rik badu. "Animalien espeziekoa da gizakia. Ugaztuna da, gorilak bezala bularraldeko ditiak bait ditu. Primatea da gizakia, orangutana eta tarsio txikia bezala, ugaztunen aristokrazia-koa bait da (bost behatzezko hankak, hiru motatako hortzak, eta garuneko hemisferioak oso garatuak). Primate handien ahaide hurbila da gizakia (gorilarena, txinpantzearena, orangutanarena, alegia), bere itxuraz, tailaz, isatsik ez duelako, eta bere funtzio anatomiko, biokimiko eta histologikoengatik (lau odol taldeak daude horien artean; O, A, B, A-B; zainbar-netik xiringa daitezke; gizakiarekin sexu-kide-tasuna dute, obulazio-tarte berdintsu eta guzti; emakumearen ernaldia 268 eguneko eta tximuarena 275 eguneko)" (J. Rostand).

Baina esanguratsuagoa den beste hau oraindak: hain handia du gizakiak animaliekiko kide-tasun molekularra, non bakterioaren eta gizakiaren artean ez bait dago alderik maila mikroskopiokoetan (amstrong-en bidez neurtzekoetan), maila makroskopiokoetan (zentimetrotan neurtzekoetan) nabariak baldin badira ere aldeak. Biokimika molekularrak zera erakutsi du: bizidunen munduaren batasuna, mikroskopia-mailan. Proteinen aminoazido-erradikalen 200 espezie kimikoak, bai algatan, bai infusoriotan, eta bai gizakiarengan aurkitzen dira. Gaur bada-kigu, bakterioetatik hasi eta gizakiaganaino makineria kimiko berdina dutela funtsean, bai egituraren aldetik eta bai lan-moduaren aldetik. Egituraz, bi makromolekula-motek: proteinek eta azido nukleikoek osotzen dituzte bizidun guzti-guztiak; lan-moduz, berriz, erreakzio-segida berberak erabiltzen dituzte organismo guztietan, indar kimikoari eragiteko eta hori gordetzeko: hots, zelulazko osagaien biosintesia" (Jacques Monod, biokimikari frantsesa).

2. Unibertsoaren hipotesi zientifikoa

Aipaturiko ezberdintasunak eta kide-tasunak zera iradokitzen dute: unibertsoak energia bikoitza duela esaten duen zientziako hipotesia. Bata da energia tangenziala, izaeraz kuantitatiboa, unibertsoaren egitura biokimikoa eraikitzen duen kanpo-indarra; bestea da energia erradiala, izaeraz kualitatiboa, egitura hura gero eta batasun-modu handiagotan (atomotik molekulara, molekulatik zelulara, zelulatik organismora, organismotik gogamenera) eratzen duen barne-indarra.

Energia tangenzialak, bada, etxe bat biokimikoki konplexuagoa eraikitzen duen neurrian, energia erradialak taxutu egiten du eraikin hori, gero eta forma garaiagoak emanez. Hau da, unibertsoa egitura bakunetatik (ionizaturiko gasetatik) egitura konplexuagotara (ura, azido edo silikatoa bezalakoetara) igarotzen den neurrian, gero eta batasun-modu handiagotara igotzen da unibertsoa (molekuletatik zeluletara, organismora eta gogamenaren batasuneraino). "Organismo biziaren funtziozko koherentziak, bizidunaren iharduera kimikoa batu eta eratuko duen sistema zibernetikoaren lana eskatzen du" (J. Monod).

Fisikaren aldetik ezin daiteke energien bateratze-fenomeno hori argitu. Zergatik? Zeren egitura biokimikoak, bateratze hori eragotzi egiten duen izaera osagarri hau bait du: hots, inbariantza. Funtsez egonkor edo kontserbakor da sistema biokimikoa. Bere egituraz da ebolu-zioaren kontrakoa. Horra hor non daukagun izadiaren gertakaririk paradoxazkoena: hots, ehun-daka mila urtetan behin eta berriro aldaketarik gabe erreproduzitzen diren espezieen sistema eboluzionatzea, bere egituraz hain egonkorra izanik ere. Kanbrikoaren azkenalditik honera (500.000.000 urtetan) espezie batzuk ez dute eboluziorik jasan: lingulak, esate baterako, 450.000.000 urteotan; ostrak, berriz, azken 150.000.000 urteotan).

Bere egituraz egonkorra den unibertso hau eboluzionakorra da, paradoxazkoa baldin bada ere, bere maila makroskopiokoetan: hau da, geosferan, biosferan eta noosferan. "Paradoxa nabarmena gertatzen da zarata-iturritik biosferaren musika guzti hori sortu izana. Paradoxaz-

koagoa oraindik, ibai-korranteak, maila makroskopiko horretan, bere eraikin biokimikoa, maila mikroskopikokoa, hain aldakaitz gorde izan" (J. Monod).

Zein hipotesi zientziakoak argi dezake horrelako koherentziarik eza?

a) Beharraren hipotesia

Unibertsoaren lege fisikoetan barneraturik dago aldatzearen beharra. Baina hori egia izatera, bere horretan aldatu gabe irau du nonbait unibertsoak lehen erakuntza geologikoez gero; izan ere, bere osaera biokimikoagatik, aldatu gabe itzultzen ditu unibertsoak bere mezu fisiko-kimikoak. Horren egiturak, berez egonkor edo kontserbakorrak, ezin dezake berez aldakuntzen, are gutxiago erakuntzazko aldakuntzen, argibiderik eman.

b) Ausaren hipotesia

Substantziazko aldakuntzak (zelula, molekula, organismoarenak) ausaz konbinaturiko itzulpeneko oker txiki batzutatik datoz. Orduan, **entropia**-k (kontserbazio- eta atzerabide-printzipioak) markatzen duen norabide beretik zuzenduriko prozesuarena da eboluzioa; baina, sistema makroskopikoan, horrek gainditu dezake ausaz entropiaren behearanzko joera, eta, atzera jo beharrean, aurrera jo (**ektropia**). Eboluzioaren goranzko joerak izadiko mirariaren itxura du (J. Monod).

"Ederra baina txundigarria da Monod-en azalpena. Hiru ordenei buruz Pascal-ek emaniko sintesi famatua gogoratu beharko litzateke. Gorputz guztiak baturik ere, ezingo litzateke gogoeta kokkor bat lortu. Ezinezkoa da, beste ordenatakoa bait da gogoeta. Gorputz eta izpiritu guztiak baturik ere, ezingo litzateke maitasun absolutuzko zirkunik atera. Ezinezkoa da, beste ordenatakoa bait da maitasun absolutua. Monod-en ustez, ausaz baturiko oker ausazkoen produktua da gizakia. Guk, sinestun gaixook, sinesten duguna, ez da hain sinesgaitza, mila bider sinesgarriagoa baizik" (François Mauriac, filosofo frantsesa). Azken hiru mila milioi urteotan, harrigarriro konplexuak eta burutsuak diren sistema biologikoen sorrera, ausaz loturiko kopietako oker hutsetatik datozela uste izatea, espezie berri bakoitzaren sorrera mirari berria dela uste izatea da. Hori, ordea, ez da zientifikoa (C. Tresmontant).

Ausa ez da inolako azalbide edo argibidea. Galdera errepikatzea besterik ez da. Nolatan elkartzen dira elkartezineko bi elementu? Elkartzen direlako. Ezeri erantzuten ez dion erantzuna da, horri ausa deitzen bazaio ere. Izanik gabeko izena da. Ez du inolako elementu berririk ekartzen, auzitan diren bi elementu bateraezinezkoak (inbariantza eta eboluzioa) argituko dituenik. Ala gizonak ez du galderak egiteko eskubiderik, ala, horretarako eskubidea baldin badu, horientzako erantzun koherenteak aurkitzeko eskubidea du, horiek Fisika zientziaren (kausa eragileez bakarrik ari denaren) mugak gainditzen badituzte ere, eta Filosofia zientziaren (kausa xedezkoez ere diharduenaren) barrutian sartuko bada ere.

3. Hipotesi teleologikoa

"Egitura biokimikoaren batasuna (kontzientziaren fenomeno) berorren erakuntz aberastasuaren (konplexutasun-fenomenoaren) proportzio zuzenean aldatzen da" (P. Teilhard de Chardin). Horra **konplexutasuna/kontzientzia** lege entzutetsua. Bi fenomeno horien arteko egokitasuna parametroaren gisakoa da, eboluzioaren norabidea hautematekoa. Horrelako elkar-egokitaisunik gertatzen bada, --eta empirikoki horrela gertatzen da, gertatu--, zientifikotzat eman daiteke, unibertsoa, fenomeno egiaztagarritzat hartuz, fenomeno gidatua dela, zeren eta unibertsoak ez bait dauka bere egituran idatzirik eboluzioaren legeak. Norantz gidatua, ordea? Batasun-forma gero eta gorakorragoan aldera: mineralena, landareena, animaliena, gizakiena. Gizakia da unibertsoaren baterakuntzaren erdigunea. Giza fenomeno da fenomeno kosmikoa.

Eboluzio-prozesuak bere baitakoa du, ez kanpokoa, gidatu izate hori. Ez da eboluzioaren fase bakoitzera *demiurgoren batek sartua. Bere hasieratik kokaturik dauka bere baitan prozesuak; horri baldintza hobereenetan behar duen gehigarria ekarriko dion indar hedakorren tankerakoa da.

4. Unibertsoaren hipotesi traszendentea

Unibertsoaren historia ez da gizakiarengan amaitzen. Bere bideari darraikio unibertsoak. Norantz? Iraganeko legeek etorkizuneko zantzuetan jartzen gaituzte. Bi lege kosmiko eten-gabe aurrez aurre gertatu dira: entropia (atzerabidea) eta ektropia (eboluzioa edo aurrerabidea). Zientziazko edozein gertakortasunaren aurka, bigarrenak gainditu du beti aurrena.

Eboluzioaren logikari jarraiki, eman daiteke unibertsoa gero eta batasun handiagoko formetara (sozialkuntzara, planetarizaziora) bideratzen dela. Etenaldirik gabe? Eboluzioa gidatzen duten legeetan oinarrituriko hipotesia eskatzen du, azken buruan, *eboluzionismo teleologikoak. Ala unibertsoa desleiala da bere legeekiko; eta orduan, prozesuaren amaian, denboraz eta espazioz mugatua, erabateko atzerabidea jazoko da, prozesu osoarekiko kontraesan fisiko eta guzti. Ala unibertsoa leiala izango da berekiko, mugarik gabe baterakuntz puntu azkenburukorantz eboluzionatuz: hau da, Omega punturantz. Prozesuaren baitakoa izan beharko du puntu horrek, zeren, prozesua mugatua denez, amaia eta muga batean izango diren erdiguneren bat behar bait du. Baina, aldi berean, prozesuaz gaindikoa izan beharko du, zeren, joeraz itzulezina den baina egituraz itzultzea ezintzen dion eragilerik ez duen prozesuaren itzulezintasun mugagabea segurtatu behar bait du. Egitura gainhartzaileak (eboluzioarenak) aurretikoa egituraren (inboluzioaren) ahalbideak gainditzen ditu.

Horixe da Omega puntua, "unibertsoaren bateragune gorena, eta diren ahulenen sendogarri paradoxala". Gertakortasun fisiko guztien kontra, "Egonkor Handia ez dago unibertsoaren gainetik, unibertsoaren erdi-erdian baizik". Erdigune horretatik Jainkoaren erakarmena nabaritzea, izatearen azken batasun eta kontsistentziarekiko sentikorra izatea: horra gizakiaren gaitasunik gorena" (Teilhard de Chardin).

B) GIZAKIA ETA JAINKOA

Gizakia da Jainkoarekin topo egiteko lekurik egokiena. Gizakia beronen osoan definitzea Jainkoaren aldeko ala aurkako jarrera hartzea da. Giza esperientziaren edukinak ematen du Jainkoaren adiera kontrakoa ala aldekoa emateko gakoa. Zer da, baina, gizakia?

1. Premiaduna da gizakia

Ogia eskatzen duenean, lehen mailako premiak (jan beharra, edan beharra, hotzetik eta berotik gorde beharra) dituen izakitza definitzen ari da bere burua. Askatasuna eskatzen duenean, oinarritzko premiak (bere eskuko izatearena, bere burua egitearena) dituen izakitza definitzen du bere burua gizakiak. *Maitasuna eskatzen duenean, premia trazezendentalak ("ni ez naizen zu batengan" nor bere burua burutzea, alegia) dituen izakitza bere burua definitzen ari da gizakia (Erich Fromm). Horiek al dira gizakia osorik definitzen duten premiak? Azkengabearen premiaduntza ere definitu ohi dute gizakia kultura pertsonalistek. Amets hutsa ala benetakoa ote azkengabearen premia hori?

S. Freud-en **Kulturaren egonezina** izeneko liburua, haren eta Romain Rolland-en arteko eztabaida batez hasten da. Bere **Amets baten etorkizuna** saiakera Rolland-i zuzendua zion Freud-ek. Amets babesgarritzat jotzen zuen erlijioa bigarren liburu horretan. Bada, bai, azkengabearekiko sentimendua, baina haurrak errealtatearen ezagutza gogorra hasi aurretik sentitzen duen guztiahaltasunaren sentimendua besterik ez da. Mundu hezikaitz eta arrotzaren errealtatea ukatu nahian ari den gizakiak jasaten duen mugarik gabeko nartzisismo horren azkenik gabereinoko *proiektzioa da Jainkoa. Errealtateari ihesi egiten uzten duen ametsa eta lilura da Jainkoa; probaldiak bizitzako minari ihesi egiten uzten duen bezala. Bere mugaduntasuna onartzen ez duen ni mugatuaren jainkoestea da Jainkoa. "Ez gabilta inola ere oker, zera uste dugunean: bizitzari xede bat ezartzeko asmoa erlijiozko sistemaren funtzioetan besterik ez dela gertatzen" (S. Freud). Zer erlijiozkoaren adiera gehiegi murriztea iruditzen zaio hori Rolland-i. Ahalezinaren sentimendua izan daiteke erlijioekera arrotzaren jatorria. Baina gizakiak bere dimentsio sakonenatza eta askatzaileenatza ezagutzen duen *Absolutuaganako grinatik sortzen da benetako erlijioekeraren iturria. Arrotzaile izan daiteke Absolutuaganako grina hori, gizakia gauzak sortzeko eta bere burua sortzeko eginbidetik urruntzen badu. Baina benetakoa da, inolako giza proiektuk --ekonomikok, kulturelek nahiz politikok-- ezin bete dezakeena, zer azkengabean bilatzera bultzatzen badu gizakia. Ik. Arrozketak.

2. Premia trazezendeteak dituen izakia da gizakia

Bere errotiartasunetik gizakiak esaten duenean, ez dagoela giza obrarik berak *egiarako, *maitasunerako, bizitzarako, duen gaitasun neurrigabea betetzeko gauza denik, bera Absolutuaren premia gisa definitzen duen bere barneko zona agertzen ari da.

Inolako giza asmok ez du erabat gizakiaren guraria asetzen. Bere asmoak ere gaintitu egiten ditu gizakiak. Ez *boterea eta ez maitasuna eskuratzeak ez du gizakiaren neurria

ematen. Gizakiak ez du bere bizi-grinaren ez bere heriotz higuinaren argitasunik aurkitzen, bere bilaketa-lanen gaindi, bere helburuen mugagabetasunaren eta bere obren mugatasunaren enigmanen korapiloa askatzen duen Zerbait edo Norbait badela itxaro ezean. Hementxe dago gakoa: "Gizakiak bera baino zerbait handiagorik daramala bere baitan" (Saint-Exupéry).

3. Dilema trazzendental

Bere egiteetan mugatua eta bere gurarietan mugagabea baldin bada gizakia, erabaki beharreko dilema ipintzen zaio aurrean: Ala ez da, izan, giza gurarien helburuko azkengabe hori, eta, orduan, absurdua da gizakia bere joera oinarritzaren. "Bere izatea oinarritzeko eta bere kontingentziari ihes egiteko inorengan bere burua suntsitzera jotzen du gizakiak. Baina kontraesanezkoa da hori. Alfer-grina, horixe da gizakia" (Jean-Paul Sartre). Ala bada, izan, gizakiaren helburuko azkengabe hori, eta, orduan, gauza guztiak dute zentzua. Gizakia ez da alfer-grina. Azkengabeko grina da, orduan, gizakia. "Zuretzat egin gaituzu eta urduri dago gure bihotza Zuregan atsedena iritsi arte" (S. Agustín).

Aukeratu beharra dago gizakiaren bi kontzeptuen artean. Biek dituzte argiuneak eta ilun-guneak. Baina bigarrenak zentzua ematen dio bizitzari eta *esperantza suspertzen du. Ez da nahitaezkoa hori aukeratzea. *Libertatearen hautapena da. Hautapen horretantxe jokatzeko da bizitzaren zentzua.

4. Amaigabeaganako bidea

Giza esperientzia da Jainkoaganako biderik onena. Bizitzako lorpenek eta porrotek ehotzen dute giza esperientzia. Bizi-pozak pozten du gizakia. "Biziaren aurrean eta maitasunaren aurrean gizatutasunaren harrotasuna nabari dugu" (A. Camus). Heriotz minak atsekabetzen du gizakia. "Heriotza da gure neke-min guztien atzea" (Teilhard de Chardin). Bakar-bakarrik aurkitzen da gizakia *heriotzaren patu horren aurrean. Ez inork ez ezerk eman diezaiokelaguntzarik bere funtsezko bakardade horretan. Eta funtsezko bakardadea ez du bere heriotza bakarrik, eta bai bere muga ere: Neurrigabeak nahi lituzkeen eta mugatuak aurkitzen dituen bere itxaropen eta maitasun guztien muga. Ba ote du zentzurik, orduan, giza bizitzak, horrelakoa bada esperientzia?

Askatu ezina da giza bizitzaren korapiloa, korapilo eta problematzat hartzen bada. Galdera da edozein problema, erantzun zehatza eskatzen duena. Gizakiak problemaren bat ipintzen duenean --e.b., zer da lerro zuzena? zer da atomoa? zer da zelula?-- zerbait hori --lerro zuzena, atomoa, zelula-- galdegai bihurtzen du gizakiak, erantzun argien zain dagoen galdegai. Baina galdegai hori norbait denean, norbait hori zerbaitetarako tresna bihurtzeko bide gertatzen da problema. Lehiatiliako enpleguari argibideak eskatzen dizkiodanean, "argibideak-emateko-dagoen-horixe" besterik ez dut ikusten aurrean. Orduan ez dut norbait horri buruz ezer ulertu. Horrek duen zer garrantzikoena ihes egin dit; hots, zorionekoa ote den, bere soldatarekin bizitzerik ba ote duen, bakardadean bizi ote den. Problematzat hartzen badut bizitza, orduan ez dakit ezer bizitzari buruz. Funtsezkoenak ihes egiten dit. "Ezagutza zehatzak betirako arrotzen du ulertu uste duen hura" (Gabriel Marcel).

*Misterioaren antzera hurbiltzen gatzazkionean bakarrik gertatzen da ulergarria bizitza. Bere datuak gainezkatu egiten dituen problema da misterioa. Norbaitek bere bizitzan eragin erabakiorra izango duen beste norbait aurkitzen duenean, ez du problemarik ipintzen --e.b., nor da? zergatik egin dut topo berarekin? galdetuz--; haren gertutasunaren misterioak inguratuta gelditzen da. Haren kideko baldin bada, ez da maitagarria delako; beste asko ere maitagarriak dira, baina ez ditu bere kideko. Ez da, hura alai delako. Agian hitsa da. Gizalagunaren misterioak gainezkatzeko du zergatik hura. Maite duelako maite du. Lagun horrek duena, benetan garrantzizkoa, problemaz haraindi aurkitzen da, berorren barnean, "nire" eta "zure" arteko mugak nahastu diren horretan. Bihotzaren arrazoiak arrazoimenaren arrazoiei gainditu egiten zaizkie. Hauek giza logika bakarrik asetzen dute; haiek, giza bihotza. Agian ez dute ezer argituko, baina bai gizakia zorioneko bihurtu. Eta horixe da kontuzkoa: zorioneko izatea.

Misterioaren eremukoa da maitasuna. Gizakiak benetan maite duenean, maitasunaren xehetasun guztiak (ona, eskuzabala, burutsua izatea, etab.) gainezkatu egiten ditu funtsezko datu erabakior honek: gizalagunak berak alegia, xehetasun guztien gainetik dagoenak. Xehetasun horiek edukitzearen mailakoa dira; gizalaguna, ordea, izatearen mailakoa. Maila horretan bakarrik jokatzeko da gizakiaren zoriona.

Maitasunaren logikan dago --hori benetakoa maitasuna denean-- maitasunaren baztergabetasun-esperientzia". Beste norbaitekiko esperientzia sakona balitz, horren nortasunaren

baztergabetasuna nabariko luke gizakiak, eta orduan inoiz ez litzaioke bere laguna miatzea-rekin agortuko" (E. Fromm). Norbait maitatzea, "Zu ez zara inoiz hilko" esan ahal izatea da. Honelako esperientziaren handiak utopikoa eman dezake, baina esperientzia bera benetakoa da. Benetako maitasunaren aurrean, zergatik den jakin gabe, zera nabari izaten da: maitasun horrek ez daukala agortzerik. Psikologi legea da hori, ukagaitza bezain arrazonagaitza. Ik. Misterioa; Maitasuna.

5. Bidearen helmuga da Jainkoa

Giza izatearen hondora garamatza maitasunaren esperientziak. Izatez agorgarria izanik ere, agortezina behar duen maitasuna aurkierazten digu esperientzia horrek. Eta maitasun agorgarria agortezina gertatzeko berme bakarra, maitasun agortezina maitasun agorgarriaren muinean egotea da. "Zu" absolutua "Zua"ren bihotz-bihotzean, maitasunaren baztergabearen lekukotat. "Geure buruak ukatu beharko genituzke, Jainkoa ukatu nahi bagenu" (G. Marcel).

6. Eta Jainkoaren bidean, gizakia

Gogamendu modernoak beti dauka susmoren bat, Jainkoa baieztatzearen ostean gizakiaren ukapena ote dagoen. Izan ere, bada Jainkoaren kontzepturik, gizakiaren handiari itzala egiten dionik.

Bada Jainkoaren kontzeptu zirkularra, unibertsoaren eta gizakiaren ikuskera zirkularra-
ren arabera. Unibertsoaren eta gizakiaren historian dena errepikatu egiten da, gauaren eta egunaren, neguaren eta udaren, aberastanaren eta pobretanaren itzuliak errepikatzen diren bezala: beti berdina irauten duten formen betiko itzulera. Beti izango da egunik eta beti izango da gaurik, eguna eta gaua beti izan direlako. Beti izango da aberatsik eta beti izango behartsurik, aberatsak eta behartsuak beti izan direlako. Bere zirkulu barnean itxita dago historia. Historiaren barnean ez da salbamenik. Historiatik at aurkitzen da salbarena, historiako istiluak konpontzeko eginkizuna duen Jainko bertikal, historiatik kanpokoan, Jainko horrekin *gurtzapenez eta *otoitzez lorturiko harreman bertikalaren bidez. Ik. Salbamen-historia.

Baina bada Jainkoaren kontzeptu lineal edo lerrokoa ere, historiaren ikuskera lineala-
ren arabera. Historia ez da inoiz errepikatzen. Egunaren ondoren egun berria dator; eta gauaren ondoren gau berria. Beti izan da aberatsik eta behartsurik, baina gerta daiteke aberatsak ez hain aberats eta behartsuak ez hain behartsu izango direneko mundua. Historiaren kontzeptu irekia da hori. *Salbarena historiaren barruan gerta daiteke. Historia horri dago-kion Jainkoa ez dago Historiatik at. Ez da "Jaun-goikoa" eta bai "Jaun-aurrekoa". Historiaren muinetik historiari eragiten dion Jainkoa, egia, amodio, askatasun amaigabeetaraino gara dadin. Unibertsoa gizakien arteko bizikidetzarako leku egoki bihurtzeko ahaleginen mugan hautematen da bakarrik Jainko hori. Jainko horrengan sinestea ez da historia Jainkoaren eskuetan uztea, eta bai gizakiaren eskuetan jartzea, Jainkoaren "muga mugagabeetaraino" zabalera eta gararazi dezan.

Ik. Jainkoa; Jainkoaren izatearen egiaztabideak; Kritika (erlijioarena); Jainkoaren ezagun-garritasuna; Jainkoaren heriotzaren teologia; Jainkoaren zuzentasuna; Jainkoaren bikaintasunak; Zientzia eta erlijioa; Humanismoa; Jainkoaren irudia.

Itz.: Paulo Agirrebaltzategi